DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Zerbitzu Orokorren Batzordea
Comisión de Servicios Generales

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

12447n II

## 36. AKTA

## Zerbitzu Orokorren Batzordea

**Batzar mota:** Ohikoa

**Eguna:** 2022-10-17

**Ordua:** 09:30ean

**Tokia:** Udalbatza

**Batzordeburua:** Jaione Hervas Saez de Arregi

**Etorritakoak:**

**Zinegotziak**:

Nekane Arzallus Iturriza

Maria Jesus Idoeta Madariaga

Reyes Carrere Zabala

Zigor Etxeburua Urbizu

Ane Oyarbide Ochoa *(10:28an bertaratu da)*

Jorge Mota Iglesias

Marta Huarte Paño

**Beste zinegotziak**:

Olaia Duarte Lopez *(09:40an bileratik irten da)*

Martín Ibabe Eceiza

Kerman Orbegozo Uribe

**Idazkaria:** Iñaki Txintxurreta Perdiguero, Idazkariak eskuordeturik.

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin diote:

## ACTA N.º 36

## Comisión de Servicios Generales

**Sesión:** Ordinaria

**Día:** 17-10-2022

**Hora:** 09:30 h

**Lugar:** Salón de Plenos

**Presidenta:** Jaione Hervás Saez de Arregi

**Asistentes:**

**Concejales y concejalas**:

Nekane Arzallus Iturriza

María Jesús Idoeta Madariaga

Reyes Carrere Zabala

Zigor Etxeburua Urbizu

Ane Oyarbide Ochoa *(se incorpora a las 10:28 h)*

Jorge Mota Iglesias

Marta Huarte Paño

**Otros/otras concejales y concejalas**:

Olaia Duarte López *(se retira a las 09:40 h)*

Martín Ibabe Eceiza

Kerman Orbegozo Uribe

**Secretario:** Iñaki Txintxurreta Perdiguero, por delegación del Secretario.

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Zerbitzu Orokorren Batzordea
Comisión de Servicios Generales

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**1.- 2022ko irailaren 19an eta 27an izandako bileren aktak irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.**

Bozketa egin eta aho batez onartu dituzte 34. eta 35. aktak, 2022ko irailaren 19an eta 27an egindako bilerei dagozkienak.

**1.- Lectura y aprobación, si procede, de las actas de las sesiones celebradas los días 19 y 27 de septiembre de 2022.**

Se aprueban, por unanimidad, las actas número 34 y número 35, correspondientes a las sesiones celebradas los días 19 y 27 de septiembre de 2022.

**2.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, baliabide publikoen erabilera dela eta.**

Honako interpelazio hau irakurritzat eman dute:

"Olaia Duarte Lópezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, INTERPELAZIO hau egiten dio Juanra Viles zinegotziari, Zerbitzu Orokorren Batzordean erantzun dezan.

JUSTIFIKAZIOA

Ekainean Udal Gobernuak Donostiako Udaleko areto partekatuak erabiltzeko eta kudeatzeko baldintzen jarraibideak onartu zituen. Jarraibide horien arabera, udaletxeko aretoak hainbat multzotan banatu ziren (bilera gela irekiak, gela instituzionalak, prentsa aretoak, hiritarrekin bilerak egiteko gelak, eta abar) haien erabilera mugatuz.

Horiek horrela, udal langileek gela baten erreserba egiten dutenean, gaiaren arabera bata edo bestea erabiltzeko muga ezartzen zaigu, nahiz eta diktamenean jasotzen den aretoak udal-zuzendaritzen barneko beste jarduera batzuetarako erabili ahal izango direla (bilerak, prestakuntzak eta abar), baldin eta eskuragarri badaude eta horien kudeaketaren arduradunek baliozkotzen badute.

Irailean, herritar batzuek bilera bat egiteko eskaera egin eta gero, EH Bildu udal taldeak gela baten eskaera egin zuen, irailaren 12an bilera egin ahal izateko. Gela gehienak hartuta zeudela ikusita, hutsik zegoen Urumea gelaren erreserba egin genuen. Ondorengo egunean, eskaera deklinatua izan zen honako mezu honekin "Espazio hauen erreserbak bakarrik, udal departamenduek egin ditzakete, lehentasuna izanik herritarrekin ospatzen diren bilerak" . Eta ez zitzaigun beste aukerarik eman. Hiru teknikariekin hitz egin eta gero gure eskaera Alkatetzara deribatua izan zen eta bilera

**2.- Interpelación presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la utilización de los recursos públicos.**

Se da por leída la siguiente interpelación:

"Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al alcalde Eneko Goia Laso, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

El pasado mes de junio el Gobierno Municipal aprobó las Directrices de condiciones de uso y gestión de las salas compartidas del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián. Según estas directrices, las salas del ayuntamiento se dividen en salas abiertas de reuniones, salas institucionales, salas de prensa, salas de reuniones con la ciudadanía, etc., limitando de esta forma su uso.

De esta forma, la reserva de una sala por parte del personal municipal se limita a la utilización de un tipo de sala u otra en función del tema que se vaya a abordar, si bien en el dictamen se recoge que las salas podrán ser utilizadas para otras actividades internas de las direcciones municipales (reuniones, formaciones, etc.) siempre que estén disponibles y su uso esté validado por los responsables de su gestión.

En septiembre, tras la solicitud de reunión de varias personas ciudadanas, el grupo municipal de EH Bildu realizó una solicitud de uso de sala para poder celebrar una reunión el día 12 de septiembre. Viendo que la mayoría de las salas estaban ocupadas, reservamos la sala Urumea, que estaba libre para esa fecha. Al día siguiente, la solicitud fue declinada con el siguiente mensaje: «Las reservas de estos espacios solo pueden ser realizadas por los departamentos municipales, teniendo prioridad las reuniones que se celebren con la ciudadanía». No se nos ofreció ninguna otra alternativa. Tras hablar con

12447n II

egiteko 15 minutu falta ziren arte ez zitzaigun erantzunik eman, nahiz eta Urumea erabili gabe egon.

los tres técnicos, nuestra solicitud fue derivada a Alcaldía y hasta que faltaban 15 minutos para la reunión no se nos dio una respuesta, aunque la sala Urumea seguía libre.

Urriaren 5ean arazoa errepikatu da eta Urumea gela libre egonda, erabiltzea deklinatu zaigu arrazoi bera emanez. Ulertezina da espazio publikoak erabili gabe daudenean herritarrekin egin beharreko bilerak oztopatzea eta eskaerak deklinatzea beharra duenari aukera alternatiborik eman gabe.

El 5 de octubre se repite el problema y estando libre la sala Urumea, se nos declina la solicitud de su utilización por el mismo motivo. Es incomprensible que cuando estos espacios públicos no están siendo utilizados, se obstaculicen reuniones con la ciudadanía y se declinen peticiones sin ofrecer alternativas a quienes lo necesitan.

Hori dela eta, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

• Zer dela eta mugatzen da baliabide publikoen erabilera erabili gabe dauden bitartean? Zer dela eta deklinatzen dira bilera-gelak erabiltzeko eskaerak, gelak hutsik daudenean?

• ¿Por qué se limita el uso de los recursos públicos mientras están fuera de uso?¿Por qué se declinan peticiones de uso de salas de reuniones cuando éstas están libres?

• Zer dela-eta ez da erraztasunik ematen Udalean ordezkaritza duten talde politikoek zein sindikatuek herritarrekin bilerak egin ditzaten?

• ¿Por qué no se facilita la celebración de reuniones entre la ciudadanía y grupos políticos o sindicatos con representación municipal?

• Zer dela eta ez da bilera-gela alternatiborik eskaintzen, egindako gelaren eskaera deklinatzen denean?

• ¿Por qué no se ofrece una sala de reuniones alternativa cuando se declina la petición de sala?

• Zer dela eta deklinatzen dira bilera eskaerak honako argudio honekin: “Espazio hauen erreserbak bakarrik, udal departamenduek egin ditzakete, lehentasuna izanik herritarren ospatzen diren bilerak”; hain zuzen ere, herritarrek eskatutako bilerak direnean?

• ¿Por qué se declinan las solicitudes de reunión con el siguiente argumento: «las reservas de estos espacios solo pueden ser realizadas por los departamentos municipales, teniendo prioridad las reuniones que se celebren con la ciudadanía», cuando precisamente en este caso eran reuniones solicitas por propia la ciudadanía?

• Zer dela eta ez da udaletxearen erabilera publikoa eta parte-hartzailea sustatzen?

• ¿Por qué no se promueve el uso público y participativo del ayuntamiento?

• Zer dela eta ez da betetzen Udal Gobernuak berak diktamenean jasotakoa (hau da, aretoak udal-zuzendaritzen barneko beste jarduera batzuetarako erabili ahal izango direla libre egonez gero)?

• ¿Por qué no se cumple lo recogido por el propio Gobierno Municipal en el dictamen (es decir, que las salas puedan ser utilizadas para otras actividades dentro de las direcciones municipales si están libres)?

Donostian, 2022ko urriaren 6an

San Sebastián, 6 de octubre de 2022

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu”

Mª Jesus Idoeta andreak eta Olaia Duarte andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen la Sra. Idoeta Madariaga y la Sra. Duarte López, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(09:40an Olaia Duarte andrea bileratik joan da)*

*(A las 09:40 horas se retira la Sra. Duarte López)*

12447n II

**3.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, langileek bero-boladek eragindako alerten aurrean duten egoerari buruzkoa.**

Honako interpelazio hau irakurritzat eman dute:

"Marta Huarte Pañok, Elkarrekin Donostia Udal Taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarritzat hartuta, bero-boladek eragindako alerten aurrean langileek duten egoerari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Juan Ramón Viles Gobernantzako zinegotzi ordezkariari, ZERBITZU OROKORREN BATZORDEAN jorratzeko.

JUSTIFIKAZIOA

2022ko udako bero-boladetan, langile bat baino gehiago hil dira Estatuan, bero-kolpeen ondorioz. Tenperatura altuen ondorioz alertak iragarri ziren egunetan langileek lan egiten zuten bitartean gertatu ziren ezbehar horiek. Muturreko bero-egoeretan, eta inolako prebentziorik gabe, gorputz-tenperatura 40º C-tik gora igo daiteke. Baliteke langileak konortea galtzea eta, kasurik okerrenean, bizia ere galtzea.

Kalean lan egiten duten langileek arrisku ugari izaten dituzte, besteak beste, bero-boladak. Klima-aldaketari buruzko txostenen arabera, bero-boladak gero eta sarriagoak eta luzeagoak izango dira, eta, beraz, beharrezkoa da jardutea erasan gehien jasango duten langileak babesteko.

Era berean, uda honetan ikusi dugu udal-langileak nola aritu diren lanean, bai udal-obretako lanak egiten –hala nola espaloiak konpontzen eta asfaltatzen–, bai kaleko garbiketa-lanak egiten muturreko bero-baldintzetan eta prebentzio-neurri handirik gabe.

Meteorologia-agentziek alerta laranja eta gorriak igortzen dituzte bero-boladen aurrean, kokapen-zehaztasunarekin eta denbora zehatzean. Aldez aurretik erreakzionatzeko eta jarduteko aukera ematen dute alerta horiek.

Langileak kezkatuta daude bero-boladetan izaten diren lan-ordutegiengatik eta lan-baldintza orokorrengatik.

Egungo araudiak zehazten du langile batek zer

**3.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a la situación de los trabajadores ante alertas por olas de calor.**

Se da por leída la siguiente interpelación:

"Marta Huarte Paño, Concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Concejal Delegado de Gobernanza, Juan Ramón Viles , para su tratamiento en la COMISIÓN DE SERVICIOS GENERALES relativa a la situación de los trabajadores ante alertas por olas de calor.

JUSTIFICACIÓN

Durante las olas de calor del verano de 2022 se ha producido, en el Estado, el fallecimiento de más de un trabajador, a consecuencia de golpes de calor. Estas fatalidades se han dado mientras los trabajadores realizaban sus tareas en jornadas en las que se habían anunciado alertas por altas temperaturas. En situaciones de calor extremo, y sin prevención alguna, la temperatura corporal puede subir por encima de los 40ºC . El trabajador puede sufrir pérdida de consciencia y, en el peor de los casos, la pérdida de la vida.

Los trabajadores que realizan su trabajo en la calle se ven expuestos a múltiples riesgos, entre los cuales se encuentran las olas de calor. Según los informes sobre cambio climático, las olas de calor cada vez serán episodios mas frecuentes y duraderos y por tanto, es necesario actuar para proteger a los trabajadores más afectados.

También en Donostia hemos visto este verano cómo eran realizadas tareas de obras municipales, tales como arreglo de aceras y asfaltado así como labores de limpieza por trabajadores municipales en las calles de nuestra ciudad, bajo condiciones extremas de calor y sin medidas de prevención notables.

Las diferentes agencias de meteorología emiten alertas naranjas y rojas ante olas de calor con precisión de ubicación y en el tiempo exacto. Estas alertas posibilitan reaccionar y actuar con antelación.

Los trabajadores han expresado su preocupación por los horarios y condiciones generales de trabajo durante las olas de calor.

La normativa actual detalla la temperatura máxima o

12447n II

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Zerbitzu Orokorren Batzordea
Comisión de Servicios Generales

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

tenperatura maximo edo minimotan bete ditzakeen bere eginkizunak barne-espazioetan. Ahalegin fisikorik egiten ez den bulegoetan, 17 eta 27 gradu artekoa izan behar du tenperaturak. Lan arinak egiten diren lekuetan, 14 eta 25 gradu artekoa. Hala ere, aire zabalean ez dago horrelako mugarik.

Udalaren erantzukizuna da neurriak hartzea langile publikoek beren lana arriskurik gabe egin dezaten. Neurri horien artean, honako hauek daude: enpresaren lan-arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak betetzen direla egiaztatzea; ekipamendu egokiak ematea edo lanaren plangintza egitea, hain zuzen ere langilearen osasunean arazo larriak eragin ditzaketen tenperatura altuen eraginpean egoteari aurre egiteko.

Aipatutako guztia kontuan izanda, honako hau aurkeztu nahi dugu:

INTERPELAZIOA

1. Udal Gobernuak zergatik ez du azterlan bat egiten, bero-boladen ingurumen-baldintzek eraginak izan ditzaketen lan-egoera, lanpostu eta zeregin guztiei buruz, langile publikoen, erakunde autonomoen, sektore publikoko enpresen eta enpresa kontratisten osasuna babesteko?

2.- Udal Gobernuak zergatik ez du ezartzen kontratazio-pleguetan enpresetako lan-arriskuen prebentzio-protokoloetan muturreko bero-aldietan gerta daitezkeen tenperatura altuen eraginpean egoteagatik osasunerako arriskuak saihesteko neurririk?

3.- Udal Gobernuak zergatik ez du aztertzen bero-boladetan udal langileek aire zabalean egiten dituzten eta ahalegin fisiko handia eskatzen duten lanak eteteko aukera, hain zuzen ere eguneko ordu beroenetan?

Donostia, 2022ko urriaren 6an

Sinatua: Marta Huarte Paño
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia"

Kerman Orbegozo jaunak eta Marta Huarte andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

mínima a la que un trabajador o trabajadora puede desarrollar sus funciones en espacios interiores. En oficinas en las que no se realicen esfuerzos físicos debe estar comprendida entre 17 y 27 grados. Donde se realicen trabajos ligeros, entre 14 y 25 grados. Sin embargo, estos límites no existen al aire libre.

Es responsabilidad del Ayuntamiento tomar las medidas para que los trabajadores públicos desempeñen su labor sin riesgos. Entre esas medidas están el que compruebe el cumplimiento de las obligaciones en materia de prevención de riesgos laborales de la empresa, el que se doten de los equipos adecuados o la planificación del trabajo para contrarrestar la exposición a altas temperaturas que pueden desencadenar graves problemas en la salud de la trabajadora o el trabajador.

Teniendo en cuenta lo anterior presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué motivo el Gobierno Municipal no elabora un estudio, para su aplicación, de todas las situaciones laborales, puestos de trabajo y tareas que puedan verse afectadas por las condiciones ambientales de olas de calor, para proteger la salud de los trabajadores públicos, de los organismos autónomos, empresas del sector publico y empresas contratistas?

2.- ¿Por qué motivo el Gobierno Municipal no establece en los pliegos de contratación que en los protocolos de prevención de riesgos laborales de las empresas, se incluyan medidas dirigidas a evitar riesgos para la salud motivados por una exposición a elevadas temperaturas que se puedan dar en episodios de calor extremo?

3.- Por qué motivo el Gobierno Municipal no estudia la posibilidad de suspender las labores y tareas que son desempeñadas al aire libre por trabajadores municipales, que requieran de un considerable esfuerzo físico, en los periodos de mayores temperaturas durante olas de calor ?

Donostia, a 6 de Octubre del 2022

Fdo.: Marta Huarte Paño
Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia"

Intervienen el Sr. Orbegozo Uribe y la Sra. Huarte Paño, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

12447n II

*(Lehendakaritzak gonbidatutako hiru langile sartu dira, udal-eraikinetako garbitzaileak)*

**4.- Galdera, EH BILDU taldeak aurkeztua, udal eraikinetako garbitzaileen ordezkari sindikal bati jarri zitzaion isunari buruzkoa.**

Reyes Carrere andreak galdera hau aurkeztu du:

"EH BILDU udal taldeko zinegotzi Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 135. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, GALDERA hau egiten dio Martin Ibabe zinegotzi ordezkariari azken udalbatzarrean udal eraikinetako garbitzaileen ordezkari sindikal bati jarri zitzaion isunari buruz, azalpenak eman ditzan Zerbitzu Orokorretako Batzordean.

JUSTIFIKAZIOA

Iraileko udalbatzarrean, udaltzain batek isuna jarri zion udal eraikinetako garbitzaileen ordezkari sindikal bati Udalbatza Aretotik ateratzen ari zenean. Langile horrek dioenez, irteerako atearen parean zegoela, bi hitzeko esaldi bat oihukatu zuen, eta bertan zegoen udaltzainetako batek zigortu egin zuen, "por alteración del orden público" argudiatuz.

Berarekin zeuden sindikalisten protestei kasurik egin gabe, zentzugabekeria eta gehiegikeria horren lekuko izan baitziren, udaltzainak NANa eskatu eta datuak jaso ondoren jakinarazi zion zigortutako langileari etxean jasoko zuela isuna. Arraroa da, halaber, une horretan bertan kopiarik ez eman izana.

Erabat zalantzazkoa da erabilitako irizpidea; izan ere, Udaltzaingoak ordezkari sindikalak ordena publikoa nahasteagatik zigorra merezi zuela erabaki zuen bitartean, alkateak (Udalbatzako presidentea) ez zuen beharrezkotzat jo udalbatzarra etetea —beste batzuetan egin izan duen bezala—, bertan geunden zinegotziok apenas entzun genuen langileak esandako ezer, eta aretoan zeuden kazetariek beraiek ere ez zuten argi zer esan zuen langileak, oso gertu egon arren.
Halaber, harritu egin gintuen ere udalbatzarraren hasieran (09:30ean) sarreran ohi baino askoz agente gehiago egoteak, Udal Gobernuaren

*(Se incorporan tres personas invitadas por la Presidencia, personal de limpieza de los edificios municipales)*

**4.- Pregunta, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la multa que se impuso a un delegado sindical de limpieza de edificios municipales.**

La Sra. Carrere Zabala presenta la siguiente pregunta:

"Reyes Carrere Zabala, concejala del grupo municipal EH BILDU, en base al artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, hace la siguiente PREGUNTA al concejal delegado Martin Ibabe, para que dé las explicaciones pertinentes, en la Comisión de Servicios Generales, sobre la multa que se impuso en el último pleno municipal a una persona representante sindical del personal de limpieza de los edificios municipales.

JUSTIFICACIÓN

En la sesión plenaria celebrada en septiembre, una persona agente de la Guardia Municipal sancionó a una persona representante sindical del personal de limpieza de los edificios municipales, cuando salía del Salón de Plenos. La persona que resultó multada manifiesta que, estando a la altura de la puerta de salida, gritó una frase de dos palabras, y fue sancionada por una persona miembro de la Guardia Municipal que se encontraba allí, quien alegó "alteración del orden público".

Ignorando las protestas de las demás personas sindicalistas con las que se encontraba, quienes fueron testigos de esa sinrazón y de ese abuso, la Policía Municipal, tras solicitar el DNI y recabar sus datos, comunicó a la persona trabajadora sancionada que recibiría la multa en su domicilio. Resulta sorprendente que no se le entregara copia en ese mismo momento.

El criterio utilizado es del todo dudoso, ya que mientras la Guardia Municipal consideró que la persona representante sindical merecía una sanción por alteración del orden público, el alcalde (presidente de la Corporación) no consideró necesaria la suspensión del Pleno – como ha hecho en otras ocasiones –, los concejales y concejalas presentes apenas oímos nada de lo que dijo la persona trabajadora, y los y las periodistas presentes en la sala tampoco tenían claro lo que dijo esa persona, a pesar de que se encontraban muy cerca de ella.

También nos sorprendió que al principio del Pleno (a

12447n II

aginduz.

Horiek horrela, behean sinatzen zen duen zinegotziak honako galdera hauek egiten ditu:

1. Zenbat udaltzain zeuden gertakarien orduan Udalbatza Aretoan eta sarrerako atean? Zergatik bideratu ziren hainbeste udaltzain ordu hartan? Segurtasuneko zinegotzi delegatuak aurreikusten zuen emakume horiek istiluak sortuko zituztela? Edo, agian, langileak "konbentzitzeko" modu bat da udalbatzarretara protesta-ekintzak egitera joan ez daitezen —nahiz eta isilak izan—, eta isunen beldurrez bazter uzteko toki horretan Gobernuaren erabakia politikoak zalantzan jartzen dituzten ekintzak egiteko ideia?

2. Egoeraren lekuko izanik, egokia izan zela Udaltzaingoaren jarduera? Uste duzu udal eraikinetako garbitzaile sindikalistak ordena publikoa nahastu zuela eta Udalbatza normaltasunez egiten jarraitzea oztopatu zuela zigorra merezi izateraino?

3. Zenbat isun jarri dira ordena publikoa nahasteagatik azken hamabi hilabeteetako udalbatzarretan?

Donostia, 2022ko urriaren 6an.

Reyes Carrere Zabala
EH BILDU udal taldeko zinegotzia"

Martin Ibabe jaunak eta Reyes Carrere andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**5.- Bozeramaileen Batzordeak bidalitako ekimenak, baldin bada.**

**5.1.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, udal-eraikinetako garbiketa-orduen murrizketa dela eta.**

Interpelazio hau irakurritzat eman dute:

"Reyes Carrere EH Bildu udal-taldearen bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 97. artikulua oinarri, INTERPELAZIO ZUZEN hau

las 09:30 horas) hubiera muchos más agentes que lo habitual en la entrada, por orden del Gobierno Municipal.

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta las siguientes preguntas:

1. ¿Cuántas personas miembros de la Guardia Municipal se encontraban, a la hora de los hechos, en el Salón de Plenos y en la puerta de entrada? ¿Por qué se convocó a tantas personas agentes de la Guardia Municipal a esa hora? ¿Preveía el concejal delegado de Seguridad que estas mujeres fueran a causar incidentes? O quizá sea una forma de "convencer" a los trabajadores y trabajadoras de que no acudan a los plenos municipales a llevar a cabo actos de protesta, aunque sean silenciosos, y de que, por miedo a las multas, no hagan, en ese foro, actos de protesta que cuestionen las decisiones políticas del Gobierno?

2. Habiendo sido usted testigo de la situación, considera adecuada la actuación de la Guardia Municipal? ¿Cree usted que la persona sindicalista, limpiadora de los edificios municipales, perturbó el orden público y dificultó que el Pleno continuara con normalidad hasta el punto de ser merecedora de una sanción?

3. ¿Cuántas multas se han impuesto, por alteración del orden público, en los plenos de los últimos doce meses?

San Sebastián, 6 de octubre de 2022

Reyes Carrere Zabala,
concejala del grupo municipal EH BILDU"

Intervienen el Sr. Ibabe Eceiza y la Sra. Carrere Zabala, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**5.- Iniciativas remitidas, en su caso, por la Junta de Portavoces.**

**5.1.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa a los recortes de horas de limpieza en edificios municipales.**

Se da por leída la siguiente interpelación:

"Reyes Carrere, portavoz del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 97 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente

12447n II

egiten dio Donostiako alkate Eneko Goiari, zenbait udal-eraikin garbitzeko orduak murriztu direla eta, osoko bilkuran tratatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

FCC Ingurumena enpresako langileek ─enpresa hori da udal-eraikinak garbitzeko zerbitzuaren adjudikazioduna─ hilabeteak daramatzate pairatzen duten lan-prekarietatea salatzen: ekipamendu eskasa, kontziliazioa eragozten duten ordutegiak, aldi baterako kontratazioak, lan-osasuneko arazoak eta abar.

Hori dela eta, ikusita Udal Gobernuak aurten eraikinak eta lokalak garbitzeko kontratuaren lizitazio-agiri berria egiteko prozesua hasi duela eta agiri horrek zerbitzuaren baldintzak arautzen dituela eta, aldi berean, FCC enpresaren eta langileen arteko hitzarmen kolektiboaren negoziazioa baldintzatzen duela, Enpresa Batzordea hilabeteetan eta hainbat bidetatik saiatu da –azkena gure taldearen bitartez, uztaileko batzordean– Gobernuak langile horiei entzun diezaien, haien aldarrikapenak kontuan har ditzan eta aldarrikapen horiek lizitazio-dokumentu berrian jaso daitezen.

Sindikatuetako ordezkarien arabera, proposamenen helburu nagusia beti izan da kalitateko zerbitzua bermatzea eta langileentzat –emakumeak gehienak– lan-baldintza duinak izatea; kale-garbiketako langileek –batez ere, gizonak dira– eta haiek duten hitzarmenaren arteko kontratu-aldeak (soldata-arrakala, plusak, jaiegunen parekatzea) desagerraraztea; eta, azkenik, ekipamenduan eta lan-errutinetan aldaketak egitea, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.

Baina, azkenean, Udal Gobernuak hurrengo kontratazioko (2023) lizitazio-agiria argitaratu duenean, hara non ikusi dugun, 2018ko agiriarekin alderatuta, 2. sortari atxikitako eraikinetan, langileen baldintzak eta zerbitzuaren kalitatea hobetu beharrean, kontrakoa egitea erabaki dela: orduak murriztea (295).

Ondorioz, garbiketa-orduak gutxitzearekin batera, Udal Gobernuak zerbitzuaren kalitatea murriztu eta langileak pobretuko ditu; langileek ordu gutxiago lan egitea erabaki du, eta horrek haien lan-egoera okertzea dakar; gainera, erabaki du udal-eraikin asko, besteak beste haurtzaindegiak, lehen hezkuntzako ikastetxeak, Emakumearen Etxea, kultura-etxeak eta erretiratuen etxeren bat, lehen

INTERPELACIÓN DIRECTA al alcalde de Donostia, Eneko Goia, relativa a los recortes en las horas de limpieza de algunos edificios municipales, para su tratamiento en el Pleno.

JUSTIFICACIÓN

